



ARANTZako UDALA

IFZ: P 3102200 G

Herriko Plaza, 7
31790 ARANTZA (Nafarroa)
☎ 948 634 005
☎ 948 634 192
arantza.udala@arantza.eu
www.arantza.eu

ZURE ZAKURRA ZURE ARDURA

Jabeak zarete zuen animalien ekintzen erantzuleak:

- ❖ **Hezi ezazu zure zakurra:** ohitura txarrak dituen zakur batek arazoak sortzen ahal dizkie pertsoneri edo bertze animali batzuei.
- ❖ **Zaindu ongi:** eman jatekoa, edatekoa, egin dezala ariketa eta eman osasun laguntza eta leku egokia bere behar fisiologikoetarako.
- ❖ **Eman txertoa eta kendu parasitoak:** jarraitu ongi jarraibide sanitarioak, eta horrela, neurri handi batean saihestuko dituzu gaixotasunak eta bertze animalia batzuk edo pertsonak kutsatzea.
- ❖ **Erantzukizun zibileko aseguru bat izatea komenigarria da:** komeni da zakur guztiek aseguru izatea, sortzen ahal dituzten kalte eta hondamendi guztiak estalita edukitzeko. Aseguru nahitaezkoa da animalia arriskutsua baldin bada.
- ❖ **Identifika ezazu zure zakurra:** zakur guztiek inskribatuta egon behar dute Nafarroako Gobernu zentsoan eta identifikatuta, mikrotxip baten bidez (gai horietaz albaiteroa arduratzen da). Animalia galduz gero, sistema hori baliagarria izanen da non dagoen jakiteko. Aldi berean zakurra lapurtzeko arriskua ere murriztu egiten da.
- ❖ **Zure zakurrak ez dezala edan zuzenean gizakien kontsumorako diren iturrietatik.**
- ❖ **Bildu itzazu haren kakak:** zure zakurrekin paseatzera irteten zarenean, eraman ezazu zeurekin plastikozko poltsa edo bestelako ontziren bat kakak hartu eta zakarrontzietan uzteko. Gogoratu kakak ez direla ongarriak (belarra erre egiten dute). Hori funtsezkoa da gaixotasun garrantzitsu batzuk ez kutsatzeko eta gainerako herritarrei zikinkeria eta eragozpenak saihesteko.
- ❖ **Ez utzi zakurra bakarrik eta bere gisara karraketan eta parkean:** Nafarroako Legearen arabera (7/1994 Foru Legea, maiatzaren 31koa, animalien babesari buruzkoa), animalia abandonatutzat joko da jabe edo jatorri identifikaziorik batere aldean ez daramana eta inorekin ez dagoena. Kasu horretan Udalak animalia bere gain hartuko du norbaitek berreskuratu, norbaiti eman edo hiltzera eman arte.

Arantza, 2015eko urriaren 14a.
ALKATEA: Juan Miguel Almandoz Mitxelena.

D